



## **FIG BILBAO, GRABATUAREN ETA PAPERREKO ARTEAREN EUROPAKO HITZORDUA**

**FIG Bilbao Azoka dela-eta, Euskalduna Jauregian obra grafikoan adituak diren berrogei erakusketari inguru eta garai guztietako hirurehun artistatik gora elkartuko dira.**

**Bosgarren edizioa azaroaren 17tik 20ra egingo da, eta hainbat artista gonbidatu dira, Danae Stratou eta Khalid El Beka artistez gain.**

**Arte&Enpresa topaketara arteari loturiko enpresa eta fundazio handietako ordezkariak bertaratuko dira, hala nola, Luis Abril eta Rafael Orbegozo.**

**Jaialdiak “Ardoaren Kultura. Vivanco Bildumako grabatuaren maisuak” erakusketa antolatu du Bilboko Arte Ederren Museoan, eta “Selected\_05” erakusketa UPV/EHUko Bizkaia Aretoan.**

**FIG Bilbao Azokak bere egin du Bilboko hiria, obra grafikoa hiriko eta merkataritzako guneetan jarriz, hala nola, metroan edo Jesús Mari Lazkanoren obra erakutsiko duen El Corte Inglésen.**

Bilbon, 2016ko azaroaren 15aeen. FIG Bilbao azokaren bosgarren edizioa da honakoa, eta Papereko Artearen eta Obra Grafikoaren Europako erreferentzia garrantzitsuenetakoa da. Horrela, bada, beste azoka ospetsu batzuekin egiten du bat, hala nola, Pariskoarekin, Londreskoarekin eta Maastricheko Art Print Fair azokarekin. Nazioarteko proiektu hau Falconieri Etxeak eta Arthazi Elkarteak sustatzen dute, eta merkataritzako, musikako eta ikerketako eskaintza uztartzen ditu. Horiek horrela, arte galerietarako, editoreentzako eta tailerretarako guneak beste hainbat pabiloirekin konbinatzen dira; horietan, museo eta kultur erakundeetako paper gaineko obrak erakutsiko dira. Era berean, egitarau berezia osatu da, eta

tailerrez, hitzaldiz, zuzeneko erakustaldiz eta beste hainbat jardueraz gozatzeko aukera izango da. Antolamendu profesional itzela eta anbizio handikoa da, eta erakusketak nahiz jarduerak sortzen ditu urte osoan. FIG BILBAO AZOKAren emango zaio amaiera urteari, eta Bilbo Europako grabatuaren eta papereko artearen merkatuko eta zabalkundeko gune nagusi gisa proiektatuko da nazioartean, batez ere, arku atlantikoan.

## **FIG BILBAO AZOKA. 2016ko azaroaren 17tik 20ra. Euskalduna Jauregia.**

FIG Bilbao Azokak nortasun berezia dauka, desberdina eta izaera bakarrekoa izanik Espainian eta Europan: paper gaineko artearen aldeko apustu eskusiboa. Bosgarren edizio honetan, berriro ere Euskalduna Jauregia hautatu da Jaialdiko egoitza nagusia izan dadin, 6.000 m<sup>2</sup> baino gehiagorekin. FIG Bilbao azokan, obra grafikoarekin, obra garaikidearekin eta betiko obrarekin lan egiten duten tokiko eta nazioarteko 40 erakusketari inguru elkartuko dira. 300 artistatik gora bertaratzea espero da. Azokan, hainbat programa aurkeztuko dira:

- **PROGRAMA OROKORRA:** arte galeriei, obra grafikoaren editoreei eta antikuarioei eskainitakoa.
- **YOUNG PAPER PROGRAMA:** sortzen ari diren galeriei zuzendutako programa komisariatua.
- **BIG PAPER PROGRAMA:** formatu handiko obra indibidualetarako programa komisariatua.
- **TORKULO EKINTZA PROGRAMA:** azokan parte hartzen duten eta zuzeneko erakustaldiak eskaini nahi dituzten artistei zuzendutakoa.

### **ORDUTEGIA:**

Ostegunean, azaroaren 17an: 11:30etik 14:30era eta 16:30etik 21:00etara.

Ostiralean, azaroaren 18an: 11:30etik 21:00etara.

Larunbatean, azaroaren 19an: 11:30etik 23:00etara. FIG JAIA, 01:00era arte.

Igandean, azaroaren 20an: 11:30etik 21:00etara.

### **PREZIOAK**

Sarrera: 3 euro.

FIG bonua, azokako egunetarako balioduna: 5 euro.



## FIG BILBAO, AZTERKETA ETA GOGOETA

Azokako lau egunetan, hainbat topaketa profesional egingo dira. FIG BILBAOk eztabaidak eta hitzaldiak sustatzen ditu, paper gaineko artearen gaur eguneko egoeraren inguruan hausnartzeko eta egoera hori ulertzeko, eta, hartara, erakusketariei merkatuan bertan hobetzeko tresnak aurkitzen laguntzeko.

**PILAR DE ZUBIAURRE II. MAHAIA. EMAKUMEA ETA ARTEA.** Emakumeen eta kulturaren esparruan duten protagonismoaren gaineko topaketa da; kulturaren kudeaketako eta arte bisualetako profesional handiak elkartuko dira, diziplina horietan eginkizun garrantzitsua izan zuten emakumeak gogorarazteko, eta, bestalde, emakumeek gaur egun kulturako industrian duten egoera eta horien garapenean duten paper garrantzitsua argitzeko. Pilar de Zubiaurre Mahaiaren bigarren edizio honetan, Danae Stratouren ibilbidea aztertu eta ezagutaraziko da. Ondoren, Begoña Zubieta kazetariak moderatutako eztabaida egingo da, eta, bertan, artearen munduan ezagutza eta esperientzia handia duten emakumeek hartuko dute parte.

- Danae Stratou, artista eta Vita Spaceren sortzaileetako bat.
- Sara González, Arabako Arte Ederren Museoko zuzendaria.
- Miren Gabantxo, Unibertsitate Proiektzioko zuzendaria eta irakaslea (UPV/EHU).
- Petra Joos, Bilboko Guggenheim Museoko jardueren zuzendaria.

Ostegunean, azaroaren 17an, 12:00etan.



**DANAE STRATOU** artista greziarra da; eskala handiko barruko zein kanpoko instalazioak sortzen ditu, baita ikus-entzunezko proiektuak ere. Irabazi asmorik gabeko Vital Space erakundearen sustatzailea eta sortzaileetako bat da. Erakundea mundu mailako, diziplinarteko eta bitarteko ugariko artearen plataforma da. Erakusketen inguruan izandako ibilbide luzea dauka, eta honako hauetan erakutsi izan ditu lanak, besteak beste: MUMA, Australia (2016); Cerveirako Bienalaren 18. edizioa (2015); Icastica, Italia (2015); Adelaidako Nazioarteko Jaialdia, Australia (2012); La Verriere (Hermes Enpresa Fundazioa), Belgika (2010); Tesalonikako Bienalaren I. edizioa, Grezia (2007); Bida 2005 – Kirola Artean Nazioarteko Bienala, Espainia (2005); Valentziako Bienalaren I. edizioa, Espainia (2001),

eta Veneziako Bienala, Italia (1999). Bere obrak Greziako, Frantziako, AEBetako eta Egiptoko bilduma pribatuetan daude. Gaur egun, Atenasen bizi da, eta bertan egiten du lan.

**ARTEA ETA ENPRESA.** Topaketan, artearen merkatuko eta mezenasgoaren sustatzaile gisa enpresek eta fundazioek duten eginkizunaren inguruan eztabaidatuko da, betiere, gizarte ardura korporatiboaren ikuspuntutik. Félix Linares kazetari ospetsuak moderatuko du, eta bertan arituko dira arteari buruzko enpresa eta fundazio handietako ordezkariak. Gonbidatuek gure sistema fiskalaren abantailak eta desabantailak aztertuko dituzte, kenkari fiskal handiagoak dituzten Europako beste ereduaren aldean.

- Rafael Orbegozo, IBERDROLAko Lehendakartzako Bulegoko burua.
- Jose Javier Arteche, Arteche Taldeko lehendakaria.
- Santiago Vivanco, Vivanco Fundazioko zuzendaria.
- Luis Abril, nazioarteko hainbat konpainiatako aholkulari seniorra.

Ostiralean, azaroaren 18an, 12:00etan.

**ARTEAREN ONLINE MERKATUA. IKUSKPEGI BERRIAK.** Artearen merkatu digitala hazi egin da, 3,27 bilioi dolar izateraino (3000 milioi dolar baino gehiago). Hiscox aseguru-etxeak egindako azken txosteneko datuak dira, eta, aurreikusten duenez, abiadura honetan, online segmentuak 9,58 bilioi (edo 9.000 milioi) dolar inguru fakturatuko ditu 2019an. Topaketan, hizlariak egoera hori eta millenials delakoen (30 urtetik beherako belaunaldia) kontsumo-ohituren eragina aztertuko dute; izan ere, ez dute artelanik erosiko, baldin eta interneten lehenago ikusten ez badute.

**Leku-kopuru mugatua. [produccion@figbilbao.com](mailto:produccion@figbilbao.com)**

- Juan A. Rodríguez, The Art Market Agency.
- Rui Ferraz, HISCOX.

Larunbatean, azaroaren 19an, 11:30ean.



[www.figbilbao.com](http://www.figbilbao.com)



## FIG BILBAO, SORTZAILE BERRIAK

OPEN PORTFOLIO FAIR SEKZIOAREN III. EDIZIOA. Azaroaren 19an, 17:00etatik 19:00etara. Euskalduna Jauregia.

FIG Bilbao azokak belaunaldi berrien aldeko apustua egin izan du beti. Gune honen bidez, ekintzaileei eta artista berriei aukera eskaintzen zaie, FIGeko batzordeak hautatu ondoren, plataforma erreal eta profesionala izan dezaten, haien lana erakusteko. Hautatutako artisten artean, Betanzosko CIEC grabatu-zentro ospetsuaren egoitza epaitu da. Ondoren, eta hurrengo urtean zehar, hautatutako obren erakusketa bat antolatuko da Bizkaiko udalerrri batean.

***Hautatutako artistak: Manolo Acedo, Miguel Alejos, Edén Barrena, Marian Haider, Raquel Hernández, Ana Madinabeitia, Eder Sánchez eta Jan Vicar.***

TENTALDIEN KUBOAK. Azaroaren 17an, 18an, 19an eta 20an. Euskalduna Jauregia.

Gunea egurrezko 5 kubok osatzen dute, eta hamar artistak esku hartuko dute: bost, Euskal Herriko Unibertsitatekoak, eta beste bost, gonbidatutako unibertsitate batekoak. Helburua mugikortasuna, hartu-eman eta artista gazteen hedakuntza sortzea da.

## KHALID EL BEKAY ARTISTA GONBIDATUA

EUSKALDUNA JAUREGIA. GRABATUAREN ZUZENEKO ERAKUSTALDIA. Larunbatean, azaroaren 19an, 19:00etan, eta igandean, azaroaren 20an, 12:00etan.

FIG Bilbao azokaren bosgarren edizioan, Khalid El Bekay artista bertaratuko da. Casablancan (Maroko) jaio zen 1966an, eta Bartzelonan bizi da, non grabatuan espezializatu den.

Obrak kulturen arteko bidegurutzea dira. Kromatismoa eta jatorriekiko erreferentziak dira ezaugarri nagusiak, indar espresibo handiko obran. Bere lana hainbat bilduma pribatu eta kolektibotan aurki daiteke: Tarragonako Arbucies Museo Etnologikoa, Gironako L'aquarella Llança Museoa, Bartzelonako Piramidón Arte Garaikidearen Zentroa, Bartzelonako World Trade Center zentroa, etab.

**FIG Bilbao: Khalid El Bekay artistaren sorkuntza-prozesua zuzenean ikusteko aukera paregabea.**



[www.figbilbao.com](http://www.figbilbao.com)



## FIG BILBAO EXHIBITION

### TORKULO EKINTZA

Funtsezkoa da papera lantzeko modua zuzenean erakustea, eta, horregatik, azokako egunetan, gonbidatutako artistek zenbait proiektutan nola lan egiten duten erakutsiko digute.

## ARTEA ETA HAURRAK

Grabatuari buruzko haurrentzako tailerrak FIG Bilbao jaialdian.

Artea hedatzeaz gain, garapen pertsonalerako oso garrantzitsua da haurrak artearekin trebatzea. Hortaz, jardun artistikoaz gozatzeko modurik onena da obra bat nola sortzen den zuzenean ikustea. FIG Bilbao azoka dela-eta, grabatuaren teknikak ezagutzeko aukera izango dute txikienek beren senideekin batera, igandean, azaroaren 20an, 12:00etatik 13:30era, Euskalduna Jauregian. Jarduera 6 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzenduta dago.

Leku-kopuru mugatua. Eman zena [produccion@figbilbao.com](mailto:produccion@figbilbao.com) webgunean.

## FIG EGOITZETAKO PROGRAMAZIOA

ARTE EDERREN MUSEOA. *“Ardoaren Kultura. Vivanco Bildumako grabatuaren maisuak”*. Azaroaren 8tik otsailaren 6ra. 13., 14., 15. eta 16. aretoak.

Grabatuaren eta Papereko Artearen Nazioarteko Jaialdiak *“Ardoaren Kultura. Vivanco Bildumako grabatuaren maisuak”* erakusketa antolatu du Bilboko Arte Ederren Museoan, Vivanco Fundazioarekin lankidetzan. Bertan, Ardoaren Kulturari buruzko Vivanco Museoko Bilduma Pribatuko 76 grabatu batuko dira. Erakusketan, XV. mendetik gaur egun arteko grabatu klasikoak eta artista garaikideen obrak ikusi ahal izango dira; 2017ko otsailaren 7ra arte bisitatzeko aukera izango Bilboko Arte Ederren Museoan.

Obren bidez, ardoaren munduak grabatu klasikoaren eta garaikidearen artelanetan izandako eraginaren lekuko diren artista handietako batzuk Andrea Mantegna, Alberto Durero, Hendrick Goltzius, José de Ribera, Picasso, Miró, Chagall, Tàpies, Andy Warhol, Paula Rego, Antonio Saura, Manolo Valdés, Miquel Barceló eta Eduardo Arroyo dira.

Bestalde, Vivanco Museoak FIG BILBAO AZOKAn hartuko du parte, urtero Vivanco Fundazioak antolatutako Grabatuaren eta Ardoaren Nazioarteko Saria irabazi duten obrekin.



[www.figbilbao.com](http://www.figbilbao.com)



BIZKAIA ARETOA, UPV/EHU. "Selected\_05. FIG BILBAO International". Azaroaren 15etik 28ra, Axular aretoa.

FIG Bilbao azokari loturiko obra grafikoen nazioarteko artisten erakusketa da Select\_05; Jaialdiak sustatuko proiektu eta lehiaketetan parte hartzen dute, sortzaile berrien lana ezagutarazteko eta ikustarazteko. Erakusketan, formatu handiko obrak erakutsiko dira, hunkigarriak, eta Open Portfolio, FIG Graphia edota FIG sarien programen 5 urteko ibilbidea errepasatzen dute. Obra grafikoari eta teknika ugarietara buruzko nazioarteko ikuspegia da, hala nola, grabatu berdea, fotograbatua, punta lehorra edota akuaforte. Hona hemen "Selected\_05" erakusketarako aukeratutako artistak:

**Angelica Miranda, Andrea Serafini, Joanna Piech, Salvatore Lovaglio, Marjo Hyttinen, Regina Costa, Pablo Casado, Ana Vivoda, Ewelina Szydelko, Paula Fraile eta Nohemi Esperanza.**

BILBOKO ITSASADARRA ITSAS MUSEOA. "Euskadi. Flandesetik eta Europatik ikusita. XVI. eta XVII. mendeetako antzinako kartografia". Azaroaren 17tik aurrera.

Bilboko Itsasadarra Itsas Museoa FIG Bilbao azokarekin elkarlanean arituko da hirugarren urtez segidan. Beste behin ere, "Euskadi. Flandesetik eta Europatik ikusita. XVI. eta XVII. mendeetako antzinako kartografia" erakusketa antolatu du museoak. Oraingo honetan, Stefaan Cloet bildumagileak eta erakusketako komisarioak hautatuko obrez gain, Mercatorri eta bere proiektio ospetsuari buruzko altxor kartografikoa gehitu da.

BIZKAIKO BATZAR NAGUSIETAKO ERAKUSKETA ARETOA. "Mari Dapena. Lerro artean". Azaroaren 16tik urtarrilaren 8ra.

"Mari Dapena. Lerro artean" erakusketaren xedea artistak marraztutako obra ezagutaraztea da, hainbat grabatu barne. Erakusketan, landutako hainbat gai ikusteko aukera izango dugu, ia beti olio, taila eta grabatu bidez erakutsitakoen paraleloan; izan ere, motibo berberak hainbat formatutan errepikatu ohi zituen. Era berean, marrazkien bilakaera teknikoa ikusiko dugu (lerroak, marradura, "erreak", etab.), baita erabilitako materialen aniztasuna ere (arkatza, errotuladorea, boligrafoa, etab.). Horiez gainera, grabatuen hautaketa txiki bat ere izango da ikusgai.

Mari Dapena (1924-1995) artearen munduan buru-belarri aritutako pertsona izan zen (1956an Bizkaiko lehenengo erakusketa ibiltarian parte hartu zutenetako izan zen, Bizkaiko Estampa Popular taldeko, Emen taldeko eta Indar taldeko kide izateaz gain), eta politikoki oso konprometitua egon zen (frankismoaren aurkako mugimendu guztiekin bat egin zuen, eta kartzelan sartu zuten 1962tik 1964ra).

## **ESTANPEN BULEGOAK. Museoetako, erakundeetako eta enpresetako ondareen zabalkundea**

Bilboko Grabatuaren Nazioarteko Jaialdiak konpromiso irmoa dauka paperezko ondare aberatsa munduko museo handietan sustatu eta hedatzearekin. Horregatik, FIG azokak bilduma iraunkorretan ez dauden funtsak ikusteko aukera berdingabea eskaintzen du. Egoera oso erakargarria da ikusleentzat, oro har, eta papera atsegin dutenentzat, bereziki.

\* **Bilboko Arte Ederren Museoko paperaren bulegoa (Euskalduna Jauregia).**

Bilboko Arte Ederren Museoan, paperaren gaineko artearen saileko obrak erakusteko gunea izango da, hain zuzen ere, estampa japoniarrari buruzkoa.

\* **Andrés Nagel. Iberdrola Bilduma (Euskalduna Jauregia).**

Bilboko enpresa-ikonoak Europako arte-bilduma garrantzitsuenetako bat sortu du, tokiko eta nazioarteko artisten ordezkari zabalarekin. Bilduma ospetsu horretan, ikusle gehienek ezagutzen ez dituzten paperezko pieza garrantzitsuak ere badaude.

\* **Vivanco Bilduma (Euskalduna Jauregia).** Urtero Vivanco Fundazioak antolatutako Grabatuaren eta Ardoaren Nazioarteko Saria irabazi duten obra-multzoa.

\* **Bilbao Arte. Euskalduna Jauregia.** Bilbao Arte zentroko ikasleen obren erakusketa: Ana Berenguer eta María Rubio Tortosa.

## **FIG BILBAOK BERE EGIN DU HIRIA**



[www.figbilbao.com](http://www.figbilbao.com)





“**FIG Kuboak**” hiriko gune estrategikoetan banatuko dira berriro ere, jende gehien dabilen lekuetan, Jaialdiko programazioa ezagutarazi ahal izateko. Hona hemen gune batzuk: Kale Nagusia, Arriaga, Euskadi Plaza eta Abandoibarra.

**El Corte Inglés.** Saltoki ospetsuak azokan hartuko du parte aurten. Azken hamabostaldian, Bilboko Kale Nagusiko saltoki-guneko erakusleihatoko batean, FIG Bilbao jaialdiaren hasiera iragarriko da, Jesús Mari Lazkanoren grabatua eta artea protagonista izango dituen instalazio batekin.

**Bilboko metroa.** Jaialdiko funtseko obrak erakutsiko dira Indautxuko geltokian, azaroaren 7tik 22ra.